

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1  
20749 AIZARNAZABAL  
(Gipuzkoa)

Zenbakia \_\_\_\_\_

**07/2015 EZ-OHIZKO OSOKO BILKURAREN AGIRIA****UDALA ERATZEKO AGIRIA.**

BERTARATUTAKOAK:  
ALKATEA:  
Mari Carmen Arregi Agirre.

ZINEGOTZIAK:  
Imanol Korta Gurrutxaga.  
Ainhoa Etxabe Zubizarreta.  
Joseba Mujika Larrañaga.  
Lorea Elustondo Erauskin.  
Eñaut Larrarte Salaberria.  
Iratxe Ciarrusta Bilbao.

ETORRI IZAN EZ DUTEN  
ZINEGOTZIAK:  
Inor ere ez.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:  
Begoña Gorritxategi Osa.

**2015ko Ekainaren 13an burututako Udal  
Osoko Bilkuraren Agiria.**

Aizarnazabalen, bi mila eta hamaika garreneko Ekainaren hamaikan, Ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren 195 eta 196 artikulua xedatzen dutenaren arabera eta Azaroaren 28ko Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa onartzen duen 2568/1986 Erregelamentuaren 37 artikulua xedatzen duenaren arabera, Udal Gorporazioa eratzeko biltzen dira alboan idazten direnak, 2011ko maiatzaren 22an burutu ziren Herriko Hauteskundeetan lortutako emaitzak kontutan hartuz, Herriko Gorporazio berritzeko.

**ADINEKO MAHAIAREN ERAKETA.**

Udaleko Idazkari Kontuhartzailean, Adineko mahai eratzen du Ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren 195 artikulua irakurriz. Adineko Mahaia eratuta geratzen da, Maria Carmen Arregi Agirre Andereak dituelako urte gehien Lehendakari lanetan jardungo du eta Ainhoa Etxabe Zubizarreta Andereak gazteena delako osatzen dute mahia.

**AURRE KONPROBAZIOAK UDALA ERATU AURRETIK.**

Adineko Mahaia eratu ondoren, Udaleko Idazkari Kontuhartzaileak kredenzialak irakurtzen ditu.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1  
20749 AIZARNAZABAL  
(Gipuzkoa)

Zenbakia \_\_\_\_\_

Konprobatzen da, bilkura honetan hautatutako Zinegotzien gehiengo absolutoa dagoela bertan, eta ondoren izendatzen dira Zinegotzi kargurako eta, bakoitzak, bere Zinegotzi kargua beteko dutela legeek agintzen dutenaren arabera aitortu eta zin egiten dute.

Izendatuta geratzen diren zinegotziak hauek dira:

**ZINEGOTZIAK:**

Mari Carmen Arregi Agirre. (EH BILDU)  
Imanol Korta Gurrutxaga. (EH BILDU)  
Ainhoa Etxabe Zubizarreta. (EH BILDU)  
Joseba Mujika Larrañaga. (EH BILDU)  
Lorea Elustondo Erauskin. (EH BILDU)  
Eñaut Larrarte Salaberria. (EH BILDU)  
Iratxe Ciarrusta Bilbao. (EAJ-PNV)

Ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren 195 artikulua arabera, Lehendakari Andereak Aizarnazabalgo Udala eratuta geratzen dela aitortzen du.

***ALKATEAREN HAUTAKETA.***

Ondoren, Udaleko Idazkari Kontuhartzaileak Ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikulua arabera, adierazten du bi hautagai daudela:

Mari Carmen Arregi Agirre. (EH BILDU) eta  
Iratxe Ciarrusta Bilbao. (EAJ-PNV)

Botazioa, ahoz egitea erabaki ondoren, horrela egiten da, ondorengo emaitzarekin:

Mari Carmen Arregi Agirre. (EH BILDU) sei boto,  
Iratxe Ciarrusta Bilbao. (EAJ-PNV) boto bat.

Ondorioz, eta bozketaren emaitza ikusi ondoren, zinegotzi kopurua zazpikoa denez, eta gehiengo absolutorekin, mahaiaren lehendakariak, Alkatea izendatzen du MARIA CARMEN ARREGI AGIRRE, (EH-BILDU) zerrendako burua dena.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1  
20749 AIZARNAZABAL  
(Gipuzkoa)

Zenbakia \_\_\_\_\_

**JABETZA HARTZEA.**

Azaroaren 28ko Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa onartzen duen 2568/1986 Erregelamentuaren 40.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, MARI CARMEN ARREGI AGIRREK Alkate kargua zintzo beteko duela zin egiten du.

**ARKEOA.**

Ondoren, Idazkariak, banketxetako saldoen berri eman zuen, emaitza honekin:

Caja Laboral 029.0.07074.7	559,85
Caja Laboral 029.1.11236.5	624,36
Sabadell 0081-4226-19-0001000111	156.213,64
Kutxa 2095 5033 10 1060024436	97.953,47
<b>Guztira euroak.</b>	<b>255.351,32</b>

Ondasunen inbentarioa ere eskuragai dagoela esaten du nahi duenak ikusi dezan.

Eta beste gairik ez zegoela ikusi ondoren, Udal Osoko Bilkura hau eguordiko hamaika eta erdietan amaitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Eritziarekin.

O.E.  
ALKATEA,

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA,

